

Nobedadeak 2021eko zerga-araudia

ATARIKO OHARRA

Testu hau dibulgaziokoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Bertan, 2021eko zerga-araudiko nobedadeak, 2021ean indarrean dagoen COVID-19aren ondorioz onartutako araudia eta 2021ean indarrean dagoen TicketBAI araudia jasotzen dira.

Nobedadeak 2021eko zerga-araudia

- 3/2021 Foru Araua, apirilaren 15ekoa, 2021erako zenbait zerga aldaketa onartzen dituen (2021-04-21eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 11/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua aldatzen duena (2021-04-10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen (2022-03-14 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5ekoa, eguneko krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa. (2022-04-06 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

2021ean indarrean dagoen COVID-19aren ondorioz onartutako araudia

- 2/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 5ekoa, Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen (2020-05-07ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 5/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 26koa, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga neurri buruzkoa (2020-05-27ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, Covid-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarri buruzkoa (2020-10-15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

- 11/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa (2020-12-02ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen (2021-03-24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 162/2020 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egiten diren emari eta dohaintzen zerga tratamenduari aplikatu beharreko interpretazioa (2020-04-27ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

2021ean indarrean dagoen TicketBAI normatiba

- 3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena (2020-11-12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen (2021-03-24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, TicketBAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa (2021-07-08ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 5/2021 Foru Dekretu-Araua, irailaren 7koa, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkarien aurrerakin likido bat ezartzen duena (2021-09-08ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).
- 1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5koa, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onesteko (2022-04-06ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

3/2021 FORU ARAUA

51. artikulua. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa

Zerga ondorioetarako ondare garbia kalkulatzeko modu berria. 2. apartatuan arautzen denerako, ez dira zerga ondare garbiaren parte izango:

- a) Bazkideen ekarpenak.

- b) Kredituen konpentsazioak eragindako kapital zabalkuntzak edo funts propioenak.
- c) Akzio propioekin egindako eragiketengatik edo berregituratze motakoengatik funts propioetan egiten diren zabalkuntzak.
- d) Foru arau honen 52. eta 53. artikuluetan aipatzen diren erreserba bereziak zuzkitzeko erabilitako kopuruak.
- e) Finantza tresna konposatuen jaulkipen bati dagozkion funts propioak.
- f) Zerga honen karga tasa handitu edo txikiagotzean sortutako zerga geroratuen aktiboak aldatzearekin zerikusia duten funts propioak.
- g) Entitatean zuzeneko edo zeharkako partaidetza bat duten bazkideen ekarpenen zenbatekoa, baldin eta, bost urteko epean, bazkideak murriztapen hau aplikatu duen zergaldia amaitzen denetik, artikulua honetan xedatutakoa aplikatu badute.

Hogeita seigarren xedapen iragankorra.

2021eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan 51. artikulua aplikatu zuten entitateek, foru arau honen 51. artikulua lehenean apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako iraupen epea betetzeko, kontuan hartu beharko dute, zerga ondorioetarako ondare garbiari dagokionez, aurreko puntuan esandakoa edo, bestela, kenkaria aplikatzeko unean indarrean zegoena.

VI. Tituluko VII. Kapituluaren aurrekusten den enpresak berregituratzeko araubide berezia

- 105., 106. eta 111. artikuluetan jasotako erregulazioa ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunetara hedatzen da.
- 107 bis artikulua berria zeinek entitateen kapitalean edo funts propioetan partaidetzak eskuratzera xedaturiko finantza gastuen kenkaria mugatzen duen.

Foru arau honen 25 bis artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitatearen onura operatiboaren ehuneko 30a kalkulatzeko, ez dira sartuko eskurapen hori egin eta hurrengo 4 urteetan harekin bat egingo duten entitateei dagokiena.

15. xedapen gehigarria. Ikus-entzunezko lanen ekoizpenerako pizgarriak

Europar Batasunak emandako agindua betetze aldera, jasota utzi beharra dago, berariaz, ikus-entzunezko lanen ekoizpenerako laguntzen araubidea onartu eta Europako Batzordeari jakinarazteko erregelamendua 2023/12/31ra arte luzatu dela.

Kooperatiben zerga-araubidea

Zerga-araua Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Lege berriaren edukietara egokitzea.

11/2021 FORU DEKRETUA

53. artikulua. Ekintzailatza sustatzeko eta ekoizpen jarduerara sendotzeko erreserba berezia.

53.2c) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, enpresa proiektu garrantzitsuak ahalbidetzen dituzten entitateen partaidetzak eskuratzea, entitate partaidetu batek bere berritasunagatik kapitala eskuratzeko zailtasunak dituela esateko, entitate sortu berrizat hartuko da azken 7 urteetan eratutakoa (lehen 5).

1/2022 FORU ARAUA

77. artikulua. Kapital-arriskuko sozietate eta funtsak.

Kapital-arriskuko sozietate eta funtsei dagokien 2/2014 Foru Arauko, urtarrilaren 17koa, 77. artikuluko 9. apartatu berria. Honen arabera, akzio bihur daitezkeen obligazioak bihurtzen dituzten arrisku kapitaleko entitateek ez dute zerga oinarrian integratuko bihurketa horretan agerian jartzen den errenta, eta tributazioa akzioak eskualdatzen diren unera atzeratzen da.

1/2022 FORU DEKRETU-ARAUA

32. artikulua. Gastuei buruzko arau bereziak.

32. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, mikroenpresek beren tamainak dakartzan zailtasunengatik zerga oinarrian konpentsazio gisa aplika dezaketen gutxipen portzentajea 100eko 15 izango da 2021eko zergaldirako.

52. artikulua. Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia

Mozkinak berdintzeko erreserba berezia hornitzeko gehieneko mugak handitzen dira:

- Zerga-oinarria murriztu ahal izango da mozkinak berdintzeko erreserba bereziaren zuzkidurara bideratzen duten kontabilitate-emaitza positiboaren zenbatekoan, gehienez ere 100eko 50eraino (lehen % 10).
- Zerga-oinarriaren murrizketak ezingo du gainditu zergaldiko zerga-oinarriaren zenbatekoaren 100eko 50a (lehen % 15).
- Erreserba bereziaren saldoaren muga ez da aplikatuko (lehen % 20).
- Mikroenpresek eta enpresa txikiek (13. artikuluan aipatzen direnak) 25 puntu gehitu ahal izango dituzte aurreko puntuetan aurreikusitako mugak (lehen % 5).

Gehitutako erreserba hori aplikatzeko baldintzak:

- 2022ko lehen seihilekoko negozio-zifraren zenbateko garbiak 2021eko urte osoari dagokion negozio-zifraren % 40 izan behar du, gehienez ere.
- Zergak ez ordaintzea VI. tituluko VI. kapituluan aurreikusitako zerga-baterakuntzako araubide berezian.

- 2022ko eta 2023ko ekitaldietan ezin izango du ez mozkinik ez erreserbarik banatu, ez funts propioak murriztea erabaki, bazkideei ondasunak edo eskubideak emanaz.

Murrizketa berezi hori aplikatzen duten zergadunek honako aukera hauek izango dituzte: hurrengo 5 urte jarraietan murriztutako zenbatekoa konpentsatzea (mugaeguneratuta, zerga-oinarria integratu gabe dagoen kopuruan gehitzeaz gain, zenbateko horren 100eko 10eko zuzenketa positibo gehigarria egingo dute) edo hurrengo 10 urte jarraietan murriztutakoa konpentsatzea (kasu horretan, azken ehuneko hori 100eko 30ekoa izango da).

2/2020 FORU DEKRETU-ARAU

13.5. artikulua. Mikroenpresen, empresa txikien eta empresa ertainen kontzeptua:

Ez da urtebetera eramango eragiketa bolumenari dagokion magnitudea, urte naturalaz azpiko zergaldia **2021.** urtean hasten denean edo sorrera berriko entitateak eta entitate inaktiboak **2021.** urtean ustiapen ekonomiko bat eramaten hasten direnean (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**).

21. artikulua. Aparteko amortizazio askatasuna eta amortizazio azeleratua:

Aktibo berriak eskura jartzeko 12 hilabetetako epea 2021ean amaitzen denean, hamabi hilabetez luzatzen da (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**).

36. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea

Ondare elementua entregatu edo eskura jarri ondorengo hiru urtetan aparteko mozkinak berrinbertitzeko epeak urtebetez luzatuko dira, epe horiek **2021**ean amaitzen badira (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**).

Zergadunak ondasun bat 2019/03/14tik 2021/12/31ra bitartean eskuratu duenean eta haren asmoa eskurapen horretatik aurrerako urtebeteko epean beste bat eskualda tze a eta aipatutako apartatuetan erregulatutako zerga onurak jasotzea denean, apartatu horietan adierazitako urtebeteko epe hori beste urte batez luzatuko da (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 36. artikulua 4. apartatuko bigarren paragrafoan aparteko mozkinak berrinbertitzeko aipatzen duen hiru hilabeteko epea sei hilabetez luzatuko da, 2020/03/14tik 2021/12/31era bitartean amaitzen baldin bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 116. Artikuluaren 5. apartatuan (ondasun higiezinaren errentamendu kualifikatua aritzen diren entitateen araubidea)

jasotzen duen aparteko mozkinen berrinbertsio epearen bost urterako luzapena beste urte batez zabaltzen da, luzapen hori **2021**ean amaitzen baldin bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

52. artikulua. Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia:

52.2 artikuluan zerga oinarria kenkarien bidez gehitzeko aipatzen duen bost urteko gehieneko epea zergaldi batez luzatzen da, epe hori **2021**ean amaitzen baldin bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**). Zergadunak aurreko paragrafoan aipatutako epearen luzapena erabiltzen badu, aipatutako 52. artikulua 3. apartatutan xedatutakoaren arabera erreserbaren saldoa erabili ezingo duen epea zergaldi batez luzatuko da, era berean.

53. artikulua. Ekintzailtza sustatu eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia:

53.2 artikuluan ekintzailtza sustatu eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziari zuzkitutako kopuruak bertan jasotako helburuetako batean erabiltzeko aipatzen duen hiru urteko gehieneko epea urtebetez luzatuko da, epe hori **2021**ean amaitzen baldin bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**). Zergadunak aipatutako gehieneko epearen luzapena erabiltzen badu, erreserbaren saldoa erabili ezingo duen epea urtebetez luzatuko da, era berean. Zergaduna erreserbaren saldoa osorik edo zati batean bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizatzen ez duten entitateen partaidetza lehen mailako merkatuan eskuratzea bideratzen badu, Zerga Administrazioari komunikazio bat aurkeztu beharko dio, egutegian izandako aldaketaren eta haren arrazoen berri emanda.

64. bis artikulua. Sorrera berriko entitate berritzaileek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

Sorrera berriko entitate berritzaileek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzeko 2021eko ekitaldian hasi dituzten kontratuen formalizazioa (**11/2020 Foru Dekretu Araua**), baldin eta kontratu horiek 64 bis artikulua 2. apartatuko d) letran aipatutako finantzaketa kontratuak badira, proiektuak gauzatzen hasi aurretik egin beharko da, nahiz eta, era berean, hura gauzatzen den lehendabiziko bederatzir hilabeteen barruan egin ahal izango den, betiere txostena eskatu bada, proiektua gauzatzen hasi aurretik, eta aitortzeko borondatezko epea amaitu ez bada.

Aipatutako 64 bis artikulua 2. apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, artikulua horretan jasotakoa aplikagarri izango zaie ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko urte anitzeko proiektuei, baldin eta haiek finantzaketa kontratua sinatu aurretik gauza tzen hasi badira, betiere kontratu hori 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiaren lehendabiziko bederatzir hilabeteetan sinatzen denean (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

Martxan dauden finantzaketa kontratuak aldatu ahal izango dira ordainketa eta gastuen egutegia eta inbertsioen egutegia doitzeko. Aldaketa horren berri emango zaio Zerga Administrazioari, komunikazio osagarri baten bidez, hura formalizatzen denetik hiru hilabeteko epean eta, nolana ere, abenduaren 31ren aurretik. Aparteko izaeraz, zilegi izango da jadanik formalizatutako kontratuetan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, baldin eta subrogazio hori 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiaren lehendabiziko bederatzi hilabeteetan sinatzen denean (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

66. artikulua. Enplegua sortzeagatik kenkaria:

Lan-harremana amaitzen denetik langile kopuru bera berriro kontratatzeko bi hilabeteko epea 4 hilabetez luzatuko da lan-harremana 2021eko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitartean iraungi bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

67. artikulua. Kenkarietarako buruzko arau orokorrak:

Kenkaria kontsolidatzeko erabili diren aktibo ez-korronteak ordeztzeko hiru hilabeteko epea sei hilabetez luzatuko da, baldin eta 2021ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitartean amaitzen badira (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

15. Xedapen gehigarria

Film luze zinematografiko eta ikus-entzunezko serieak estreinatzeko bi urteko epea, urtebetez luzatzen da lana 2021ean amaitzen bada (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

2021ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen diren film luze zinematografiko eta serie espainiarrek, zerga onura aplikatzeko txostena 2022ko abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango dute (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan atzerriko film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen produkzioetan inbertsioak egiteagatik kenkaria jaso dezaketen gastuak egin dituzten atzerriko lan baten ekoizpen exekutiboaz arduratzen diren enpresek, 2022ko abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango dute «pizgarri fiskala aplikatzeko txostena» dute (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

5/2020 FORU DEKRETU-ARAU

Aparteko kenkaria mikroenpresa, enpresa txiki edo ertainetan inbertitzeagatik

2021ean ordaindutako kopuruaren % 10 kendu ahal izango dute kuota likidotik (**11/2020 Foru Dekretu Araua**), enpresen akzio edo partaidetzak harpidetu edo eskuratzeagatik, baldin eta enpresa horiek mikroenpresak, enpresa txikiak edo

enpresa ertainak badira. Kenkariaren gehieneko oinarria 100.000 eurokoa izango da.

Kenkaria honako kasu hauetan handituko da:

-Akzioak edo partaidetzak enpresa berrietan edo sortu berrietan harpidetu edo eskuratzen direnean, kenkaria % 15ekoa izango da, gehieneko 150.000 euroko oinarriaren gainean.

-Eskuratu edo harpidetutako akzio edo partaidetzak entitate berritzaileenak edo hazkunde prozesuan dauden entitateenak direnean, kenkaria % 20koa izango da, gehieneko 200.000 euroko oinarriaren gainean.

Handitutako kenkariak aplikatzeko, entitatea eratzen den unean bertan edo hura eratu ondorengo bost eta zazpi urte bitartean eskuratu behar ditu zergadunak akzioak edo partaidetzak, enpresa sortu berriak edo erakunde berritzaileak diren kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Eskuratu edo izenpetutako akzio edo partaidetzek bost urtetik beherakoa ez den epe batean iraun beharko dute zergadunaren ondarean, salbu eta zergaduna edo entitate partaidetua konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

Kenkari hau aplikatu ahal izateko, akzioak edo partaidetzak harpidetu edo erosi zaizkion entitatearen ziurtagiri bat lortu behar da, non adierazi behar den haren akzio edo partaidetzak eskuratu ziren zergaldian entitateari kenkarirako eskubidea izateko eskatutako beharkizunak bete zirela.

2021ean mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzen diren entitateek garatutako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketek, 64 bis artikuluan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango dute

Kendu egiten da artikulua horretan kenkariaren baturari ezarritako muga, eta 1.000.000 eurora arte handitzen da proiektu bakoitzeko finantzaketa-muga.

Kenkaria aplikagarri izango zaie ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko proiektu hauei:

- **2021ean hasitakoak (11/2020 Foru Dekretu Araua)**
- 2022an hasitakoak, kontratua **2021ean** sinatzen bada **(11/2020 Foru Dekretu Araua)**
- 2021aren aurretik hasitakoak, baldin eta finantzaketa kontratua aldatua izan bada 2/2020 Foru Dekretu-Arauko 2. artikuluko 8. apartatuan xedatutakoari jarraituz **(11/2020 Foru Dekretu Araua)**

66. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua

2021ean gertatzen diren lan-kontratazio mugagabeetarako kenkariaren gehieneko muga 7.500 eurokoa da kontratatutako pertsona bakoitzeko (**11/2020 Foru Dekretu Araua**).

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langileen kasuan, muga 15.000 eurokoa izango da.

18. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak.

2021ean (**Decreto Foral Norma 11/2020**) berriro negoziatzen edo sinatzen diren finantza errentamenduko kontratuei, ondasunaren kostua berreskuratzeko kuota beherakorrak ezarri ahal izango zaie, eta 18. artikuluan jasotakoa aplikagarri izango zaie.

21. artikulua. Amortizazio askatasuna eta amortizazio azeleratua

Amortizazio azeleratuaren araubidea, amortizazio-askatasunaren araubide batez ordezkutzen da. Araubide horri atxiki ahal izango zaizkio 2020ko maiatzaren 27tik **2021**eko abenduaren 31ra bitartean eskuratutako elementuak (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**).

Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalaren kenkaria

Kuota osoan kenkari bat egin ahal izango da, digitalki eraldatu eta merkataritza elektronikoa ezartzeko **2021**ean (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**) egindako gastu eta inbertsioen 100eko 30eko zenbatekoarekin, gehieneko muga batekin, betiere 5/2020 Foru Dekretu-Arauko baldintzak betetzen badira.

8/2020 FORU DEKRETU-ARAU

66. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua

Kontratazioaren zergaldia amaitu ondorengo lehen hiru urteak kontatze aldera, zeintzuetan ezinbestekoa den kenkarirako eskubidea sortu duen pertsonari egotzi lekioken soldata mantentzea edo handiagoa izatea, ez da kontuan hartuko **2021**eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31era (**11/2020 Foru Dekretu-Araua**) bitarteko epea, kontrako frogarik ezean, aipaturiko baldintza betetzen dela ulertuz.

11/2020 FORU DEKRETU-ARAU

36. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea

Artikulu honetan aurreikusitako ez-integrazioa berdin aplikatuko da, halaber, baldin eta artikulu horretan deskribatutako ondare elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik lortzen den zenbatekoa **2021**eko urtarrilaren 1etik

abenduaren 31era bitartean hasitako zergaldietan berrinbertitzen bada sorrera berriko entitate berritzaileen edo hazkuntza prozesuan dauden entitateen akzio edo partaidetzak eskuratzeko (89 ter artikulua NFIRPF).

2/2021 FORU DEKRETU-ARAU

Lokalen errentamenduei laguntzeko neurriak

2020ko martxoaren 14tik aurrera alokairuaren errentan adostutako beherapena, 2021. urteko hilabeteetan ordaindu beharreko zenbatekoari dagokionez.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da bai negozioen errentamenduetatik eratorritako errentak zehazteko, bai negozio-lokalen eta pabiloien errentamenduetatik datozenak zehazteko, bai jarduera ekonomikoak egiten diren etxebizitzetatik datozenak zehazteko.

Aurreikusitako neurri pizgarriak gauzatzeko, beharrezkoa izango da alokairuaren errentan borondatez adostutako beherapena gutxienez 3 hilabetez mantentzea 2021ean zehar, eta errentariak edo hirugarren batek beherapen hori geroago ez konpentsatzea edo berreskuratzea alokairuaren hurrengo errentak igoz, beste prestazio batzuk ezarriz edo beste edozein eratako kontraprestazio bidez.

Aurreikusitako neurri pizgarriak ez dira aplikatuko baldin eta persona edo entitate errentaria errentatzailearekin lotuta badago 2/2014 Foru Arauaren 42. artikulua 3. apartatua jasotako zentzuan.

Alokairuaren errentari dagokionez aipatzen den beherapenaren zenbatekoa gastu fiskalki kengarritzat hartuko da zerga oinarria zehazteko.

Ondare sozietatetzat hartzen diren entitateek aplikatu ahal izango dute, higiezin bakoitzaren errendimendua ezin daitekeelarik negatiboa izan

Covid-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoaren garapena berrabiarazten laguntzeko aparteko kenkaria.

Beren jarudera ekonomikoa berriro hasi edo berreskuratzeko edo hura osasun agintariak COVID-19ak eragindako pandemiaren aurka hartutako neurrietara egokitzeko, inbertsio horien %10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuotan.

2020. urteko eragiketa bolumena, gutxienez, 2019ko eragiketa bolumena baino %25 txikiagoa eta jarduera ekonomikoak 2020an izan duen kontabilitate emaitza edo etekin garbia, gutxienez, 2019koa baino %50 txikiagoa izan duten zergadunek aplikatu ahal izango dute kenkari hau.

Inbertsioak kengarriak izan daitezten, beharrezkoak izan behar dute jarduera ekonomikoak helburu hauek dituzten zereginetara egokitzeko: instalazioak egokitzea bertako edukierak kontrolatzeko, erreserbak kudeatzea eta Covid-

19aren transmisioa saihesteko une bakoitzean beharrezkoak diren prebentzio neurriak bermatzea, instalazioak edo zerbitzuak emateko bitartekoak berritzea edo eguneratzea, presentzialki zein urrutitik, bere jardueran zergadunak baliatzen dituen bitartekoen erabilera optimizatzen.

Kenkariaren oinarria ezingo da izan 5.000 eurotik gorakoa 67.3 artikuluko 3. apartatuan jasotakoaren arabera.

Kenkariak % 35eko muga izango du kuota likidoaren gainean.

162/2020 FORU AGINDUA

Covid-19aren aurkatko borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egiten diren emari, dohaintza, ekarpen eta doako Zerbitzu prestazioei irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei butuzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak 21etik 24ra bitarteko artikuluetan jasotzen diren onurak aplikatuko zaizkie.

Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, fiskalki kengarria den partida gisa hartuko da, eta entregatan agerian jarritako gainbalioak salbuetsita egongo dira.

3/2020 FORU ARAUA

Kuota osoko kenkaria, TicketBAI sistema ezartzearekin lotutako inbertsio eta gastuengatik (22. XG)

2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako inbertsio eta gastuen % 30 kendu ahal izango dute beren kuota osotik, TicketBAI sistemaren ezarpenarekin erlazionatuta badaude:

- Behar diren ekipoak eta terminalak erostea, baita horiekin lotutako softwarea eta periferikoak ere, foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatutako obligazioa bete ahal izateko, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.
- Foru arau honen 122 bis artikuluko 2. apartatuaren b) letran aipatzen diren ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien inguruko betebeharrak betetzeko behar den softwarea eskuratu, harpidetu, entregatu, eguneratu edo berritzea, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.
- Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien inguruko betebeharrak betetzeko ezarri behar den sinadura elektronikoko softwarea eskuratu, harpidetu, entregatu, eguneratu edo berritzea, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.

Kenkariaren oinarria ezingo da handiagoa izan hauek baino:

- 5.000 euro.

- 2019an amaitutako azken zergaldiari dagokion negozio zifraren zenbateko garbiaren % 1.

Negozio zifraren zenbateko garbiaren % 1aren emaitza hori 500 eurotik beherakoa denean, kenkariaren oinarria bi hauetako txikiena izango da:

- Benetan egindako gastuen eta inbertsioen oinarria.
- 500 euro.

Kenkarirako eskubidea ematen duten gastu eta inbertsioek zergaldi bat baino gehiago hartzen badute, gehieneko muga bakarra izango da zergaldi guztietarako.

Inbertsio eta gastuen kenkaria ezingo da aplikatu TicketBAI sistema ezartzeko obligazioa zergadun bakoitzarentzat exijigarri bihurtu ondoren egindakoak badira.

TicketBAI, txikizkako merkataritza eta borondatezko TicketBAI kenkarien baterako muga.

Ondare-sozietateek kenkaria aplikatu ahal izango dute.

2/2021 FORU DEKRETU-ARAU

TicketBAI fakturazio eta komunikazio sistema (22. xedapen gehigarria) ezartzearekin lotutako inbertsio eta gastuengatik kenkari fiskala % 60ra arte handituko da, TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen betetzea borondatez aurreratzen denean. Kenkari-oinarria kalkulatzeko, muga 1.500 eurora arte handituko da.

Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatzeko aukera ematen da, 2021eko azaroaren 1a baino lehen TicketBAI betebeharra borondatez betetzeagatik gehitutako kenkariaren espezialitate berberekin.

4/2021 FORU DEKRETU-ARAU

TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkaria eta bai txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari areagotua aldatzen dira, betiere haiek aplikatzeko eskubidea izan dezaten zergadunek, baldin eta beren borondatez aukeratzen badute TicketBAI obligazioa derrigorrezko data baino gutxienez hilabete bat lehenago betetzea.

5/2021 FORU DEKRETU-ARAU

TicketBAI obligazioa borondatez ezartzearen ondoriozko kenkaria lortzeko epea aurreratzeko aukera ezartzen du inbertsioak eta gastuak egiten diren unera aurreko 4 zergaldietan ordaindutako zergen kargura, baldin eta horiek aurkezteko epea lehen aurrerakin eskaera aurkeztu aurretik amaitu bada.